

KORONABIRUSA - ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN

8 positibo berri 1.622 hildako

21.632 positibo guztira*

*Hernanin 67 Astigarragan 24

NAFARROAN

6 positibo berri 528 hildako

positibo guztira 1 eguneratu gabe UCI

Sendatuak EAEn: eguneratu gabe

Astigarragako aurrekontu partehartzaileen azken txanpan, 210.000 euro herritarren esku

Martxoan jarri zen martxan aurrekontu partehartzaileen prozesua, eta jadanik azken txanpara heldu da. Atzo ireki zen galdetegia, eta uztailaren 21era arte egongo da aukera parte hartzeko. Herritar bakoitzak lau aukera ditu gehienez, eta bi modutara egin daiteke; modu telematikoan edo modu presentzialean.

ASTIGARRAGA UDALA

Astigarragako Udala aurrera doa 2020ko aurrekontu partehartzaileen prozesuarekin, izan ere «azken txanpara» heldu dira jadanik. Atzo jarri zen martxan galdetegia, eta uztailaren 21era arte egongo da aukera bertan parte hartzeko.

Guztira, orain arte, 215 proposamen jaso dira, eta «denak aztertu» dituztela jakinarazi du Astigarragako Udalak. Hala ere, 21 proposamen hautatu dira galdetarako.

Egindako balorazioan, proposamenak sailkatu egin ditu Udalak, era honetara, «alde ba-

tetik, sailkatu ditugu martxan daudenak, eta beste aldetik, urtean zehar beste aurrekontu atal batzuetatik burutu daitezkeenak, gero baztertutako proposamenak, eta amaitzeko, galdeketarako hautatuko proposamenak». Gainera, proposamenen sailkapena, balorazio eta galdeketarako hautatutako proposamenak ikusgai daude Astigarragako Udalaren webgunean.

21 proposamen

Guztira 21 proposamen hautatu dira galdeketarako eta honako hauek dira: Skate Park bat Portutxon. Bidebitarteren zati bat



Gaur banatuko da informazioa, Astigarragako auzoetako buzoietan.

asfaltatu, Andre Gobadarien ibai-parkearen gunea osatu. Euskararen erabilera sustatzeko programa, Genero berdintasuna sustatzeko. Banda zabala sarea landa-eremura eraman. Anuska auzoaren hiritartze partziala. Juangitenea plazaren ur-arazoei buruzko azterketa gauzatu. Irigarritasuna hobetzeko lanak. Herri baratza parke publiko berri bat instalatu. Hondakin organikoentzako poltsa konpostagarrien doako banaketa. Haur parkeen hobekuntza.

Frontoian berritzeak. Santiagomendiko aterpea eta inguruak berritu. Baserriak mantentzeko edota berritzeko laguntzak. Foru plaza egiten diren jaietarako egokitu. Alokairurako diru-laguntzak. Mural parkea herrian zehar. Arrobitxulon gune estali bat egokitu eta Murgia parkean hobekuntzak.

Parte hartzeko pausuak

Bozketan parte hartu ahal izango dute «2020ko urtarrilaren lehen Astigarragan erroldatuta dauden eta 16 urte edo gehiago

dituztenek». Gainera, galdeketa onartutako proposamenen zerrendatik, lau hautatu ahal izango dira gehienez. Emaitzaren arabera aurrekontu partehartzaileetarako ezarritako 210.000 euroak agortu arte esleituko dira kredituak, boto gehien jaso dituen proposamenetik hasita.

Galdeketa, irekita egongo da hilaren 21era arte. Galdeketa hau telematikoan izango da, eta horretarako www.astigarraga.eus webgunera sartu behar da. Boto telematikoaz gain, modu presentzialean ere egin daiteke, «telematikoan parte hartzeko zailtasunak dituztenentzat» eta horretarako, mahaiak jarriko dira hainbat egunetan eta herriko leku ezberdinetan: uztailaren 16an, Joseba Barandiaran plazan, 19:30etatik 21:00etara. Uztailak 17an, Kontxa Etxeberria plazan, 19:30etatik 21:00etara. Uztailaren 20ean, Norberto Amandoz plazan, 12:00etatik 13:30etara, eta uztailaren 21ean, Ergobia plazatxoan, 12:00etatik 13:00etara. **K**

20.000 izokin gazte askatu zituen pasa den asteartean Aldundiak, Urumea eta Leitzarain ibaietan

Aurreko asteartean, Gipuzkoako Foru Aldundiak 20.000 izokin gazte askatu zituen Urumea eta Leitzarain ibaietan.

URUMEA IZOKINA

Gipuzkoako Foru Aldundiak, 20.000 izokin gazte askatu zituen pasa den asteartean, Urumea eta Leitzarain ibaietan. Izokin hauek, Basa Animalia eta Landarren Zerbitzuak kudeatzen duen arrain haztegitik datoz, eta bertan jarioak direla jakinarazi du Aldundiak. De-

partamentu honek, espezi hau berreskuratzeko plangintza bat eramango du aurrera: «ibaian izokin basati gutxi batzuk harrapatu eta arrain haztegitira eraman, bertan ugaltu daitezten. Sei hilabete ondoren, izokin-kume guztiak ibaietan birpopulazten direlarik». Gipuzkoako Foru Aldundiak, duela 27 urte, jarri zuen martxan

izokina berreskuratzeko plangintza gure bailarako ibaian, Urumean, eta «handik urte batzuetara Oria ibaian.»

Aldundiak espezie migratzaile hau birpopulatzeko duen ekimenaren barruan, hainbat ekintza burutzen ditu, hala nola, «Irungo arrain haztegitik izokin basatiak ugaltu eta ondoren izokin gazteekin ibaiak birpopulazten dira. Ibaian izokin arrainkumeen populazioa ikertu, eta Elorrabin izokin helduen sarrera aztertu. Eta horrez gain, izokinen habitata hobe-

tzeko ere hartzen dira neurriak, presak eraitsi, etab.»

Dagoeneko nabariak dira birpopulazte ekimen honek eman dituen fruituak, izan ere, gure bailaran, Urumean, azkeneko 10 urtetan, batzaz beste, 181 izokin sartu dira urtero, eta gaineratu dute, «Oiarzun ibaian ere sartzen ari dira».

Aldundiak, konpromezua

Gipuzkoako ibaietan izokin basati populazio iraunkorra bermatze aldera, «populazioa haunditzeko konpromezua»

agertu du Gipuzkoako Foru Aldundiko Ekonomia Sustapena, Turismo eta Landa inguruneko departamenduak. Azken urteetan gainera, Aldundiak, proiektu garrantzitsuak garatu ditu ibaiak iragazkortzeko bidean, Europak lagundurik finantzatu diren *Guratrans* eta *Irekibai* proiektuak besteak beste. Proiektu hauei esker hobekuntza handia egon da arrain espezie diadromoan artean, «itsasoa eta ibaian artean bere ziklo biologikoa osatzen dutenak alegi: izokina, kolaka edo lamprea». **K**

Funeraria VASCONGADA
Zure eskura
24h-ko zerbitzua
943 376 980
Orkolaga, 2-4
943 55 79 01
HERNANI
www.funerariavascongada.com

GNOMOS
PAPER DENDA
Pelotari, 11 Astigarraga
943 55 38 05

Allianz ASEGURUAK
bizitza -
lurrik -
ibilgailuak -
etxeak -
komertzioak -
enpresak -
ardura zibila -
finantz aseguruak -
inbertsioak -
agustin ezponda irizar agentzia
Nagusia, 13
Telf.: 943 55 73 26
Faxa: 943 33 57 71

ITXASPE
Arrandegia
Antziola 5
Tel.: 943 330 365
Mobila: 665 735 224
20120 Hernani

GAUR Aldaketa txiki batzuk igarriko ditugu: lainotuago egongo da eta temperatura apur bat jaitsiko da. Tarteke behe-hodeiak sartuko dira, bereziki goizean goiz eta arratsaldean. **Min.15° / Max.22°**

BIHAR Bihar giro motela izango dugu eta euri apur bat egingo du. Fronte hotz bat gerturatuko da eta nahikoa ahulduta iritsiko den arren, eguraldiak moteltzera egingo du. **Min.16° / Max.21°**

DOBERA
EUSKARA
ELKARTEA

LAGUNTZAILEAK

Hernaniko Udala

Astigarrako Udala

Doberako Udala

Goizuetako Udala

Aranoko Udala

TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOAK:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622
AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korroa Goizueta-Hernani: 948 514037 ANBULATORIOA: 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) Egunez: **A. Etxebarria** Andre kalea, 48 (Hernani) **943 551793** Gauez: **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** Goizueta: Nagusia 64 **948 514353**

ELKARTEA

Gipuzkoako Foru Aldundia

DOBERA BAZKIDEAK / KRONIKALARIAK

Iñigo Legorburuk irabazi du Bertsopaper Lehiaketa, aurten

«Sortari darion zorrotasuna eta ironia puntuagatik» Legorburu txapelkun izendatzea erabaki dute epaimahikideek, XVIIgarren Iurretako aurtengo Bertsopaper txapelketan.

HERNANI BERTSOLARITZA

Iurretako liburutegiak bertako udalarekin batera, urtero antolatzen duen literatura lehiaketaren barruan, bertsopaperaren atalean Iñigo Legorburu nagusitu da *Epaille epaitua* bertso sortarekin. Xabier Amurizaren Trumoa ortzi beltzean hotska doinu «bihurrian» abesteko idatzi zuen hernaniarrak, eta sei puntuko zortzi bertsoz osatu zuen lehiaketan garaipena eman dion lana.

Bertsolaritza txapelketetan epaimahikide lanak egiten dituzten epaileen jardunak eta burutapenak kontatzen ditu Legorburuk, egilea bera bertso-epaile jarduten delako, baita ere. Hernaniarraren esanetan, «bertso-munduan epaileen gaia batzuetan nahiko tabua suertatzen da eta uste dut, badela garaia gaia naturaltasunez tratatzeko; bertsozaleak garelako ezer baino lehen, gure bertute eta itzal guztiekin».

Horrela, bere azalean bizitako esperientziak kontatu ditu Legorburuk *Epaille Epaitua* izeneko bertso sortan: «Barruan ahots kritiko bat hor nola daukagun gordea, iristean tenorea, epai-mahaikide batzuk dira eta, epaile denok, ordea», dio bertso-tako batean.

Ironia eta zorrotasunagatik eraman du saria
«Puntu horrengatik saritzea erabaki dugu», adierazi zuten Bizkaiko Bertsozale Elkarteko kideek. Hauek aritu ziren aurkeztutako bertso sorta guztiak epaitzen, eta guztietatik onena Legorbururena dela erabaki zuten.

Baina ez da lehenengo aldia Legorburuk saria jasotzen duena. Literatura genero ezberdinetan saritua izan da askotan, egindako «lan finagatik». Joan den urteko abenduan bost saritan gailendu zen eta ordurako, bere ibilbideak 80tik gora irabazi zituen. Poesia, bertsoak, idazlanak... asko dira Legorburuk biltzen dituen modalitateak.

Liburu batean argitaratu dira bere bertsoak

Garaile irten den Legorbururen bertso sorta liburu batean argitaratu da. Iurretako liburutegiak udalarekin elkarlanean argitaratzen duen liburuan ikusi du bere lana paperean.

Komiki, prosa edo poesia-ko heldu zein aurren beste lan sarituekin batera argitaratu da *Epaille epaitua* bertso sorta. Felix Marañá kazetari eta idazleak sortutako liburuan argitaratu dira zortzi bertsoak, Bermingham bere argitaletxearen bidez. Gainera, liburuaren ale bat jada liburutegi publikoak dago, «nahi duenak irakurri dezan, denen eskuragarri». **K**

Doberako udalekuetan, izena eman daiteke

Doberako udaleku irekietan izena emateko aukera dago jadanik, eta hilaren 24an amaituko da izena emateko epea.

HERNANI UDALEKUAK

Abuztuan Udaleku Irekiak ekimena sortu du Doberak, «udaleku berritzaileak eta ezberdinak izatea nahi dugu». Horretarako, gainerako udalekuetan egiten den bezala, begiraleekin jolas eta tailer ezberdinak burutzeaz

gain, herriko hainbat elkarteekin ekintzak egingo dira, hala nola, TTarla, Bertso Eskola, Amher, Antzerki Taldea....

Izena emateko epea, zabalik

Udalekuak, astelehenetik ostiralera bitartean izango dira, «abuztuak 3-7, 10-14, 17-21 eta 24-28 izango dira udaleku asteak». Izena emateko aukera dago, eta uztailearen 24ra arte egongo da aukera hau, www.dobera.eus webgunean egin daiteke. Informazio gehiagorako, 943 33 27 99 ra deitu edo idatzi dobera@dobera.eus helbidera. **K**

'Alerta Horia' kanpaina martxan, DYAk

Alarma egoerak eragindako kalte ekonomiko handia dela eta, Gipuzkoako DYAk Alerta Horia kanpaina jarri du abian.

zehar, 10.500 ordu baino gehiago eman ditu boluntariotzan, 40.000km baino gehiago egin ditu esku hartzeetan, eta 1.700 test baino gehiago egin dizkie arrantzaleei, eta 15.000 dei baino gehiago egin ditu telefarmazia zerbitzurako, besteak beste.

URUMEA DYA

Gipuzkoako DYAk, #AlertaHoria kanpaina jarri du martxan, gipuzkoarren bazkide kopurua eta dohaintza ekonomikoak areagotzeko, izan ere, «konfinamendu aldiran egindako jarduerak kalte ekonomiko handia ekarri diote irabazi asmorik gabeko elkarte honi».

Erakundeen laguntzarik izan ez arren, DYA Gipuzkoak 50.000 maskara baino gehiago banatu ditu Gipuzkoa osoan

DYArri laguntzeko, kontaktua

<https://dyakbeharzaitu.eus/> webgunea jarri du abian Gipuzkoako DYAk, bazkide egiteko edo unean uneko dohaintzak egiteko asmoarekin, «Bizum 38071 zenbakiaren bidez ere egin daitezke diru laguntzak».

Informazio gehiagorako, Gipuzkoako DYArekin jarri daiteke harremanetan, prentsa.saila@DYAgipuzkoa.com emailera idatziz, edo 943 46 46 22 telefonora deituz. **K**

Vademekun etzi, eta zinea asteburuan

EREÑOTZU UDA KULTURALA

Bertso jaialdiarekin eman zitzaion Ereñotzuko Uda Kulturalari hasiera eta hainbat ekintza egin dira orain arte. Hala ere, etzi, jarraipena izango du Uda Kulturalak, izan ere, *Vademekun* kale ikuskizuna eskainiko da, arratsaldeko 19:30etan hasita. Asteburuan berriz, *Green Book* pelikula ikusteko aukera izango dute auzotarrek, aire librean, gaueko 22:00etan hasita.

IRAGARKI MERKEAK

Emakumea lan bila: edozein lan egiteko prest. **Deitu: 609 209 161**

Langile bat behar da URGENTEA-SOLDATZAILE ETA OBRARAKO MUNTATZALEA, esperientziarekin, gidatzeko kameta eta prebentzioko kurtsoak baloratuko dira. **Interesatuak deitu 943 690 643**

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**



Eider Balerdi, Dobera eta Kronikak antolatutako 'Egunean Behin' lehiaketako saria jasotzen.

Eider Balerdi, 'Egunean Behin' lehiaketako hirugarren saritua

URUMEA EGUNEAN BEHIN

Dobera Euskara Elkarteak eta Kronikak 'Egunean Behin' lehiaketa jarri zuen martxan duela aste batzuk, eta zozketa

bidezko hirugarren postua, Eider Balerdiri egokitu zitzaion. Egunean Behin lehiaketako sailkapenen orokorrean, 105. postua lortu zuen, 375,01 pun-

turekin. Eta lehiaketa honetako hirugarren irabazlea izan denez, Errigorako produktuen lote bat eta Doberako liburuaren pack-a eraman ditu etxera.